



ANDOAINGO UDALA

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Igande goizaldean, 2018ko urriaren 6an, andoaindar gazte adintxikiko batek Lasarte-Orian jasan zuen eraso sexistaren inguruan, zera adierazi nahi dugu udaleko udal talde guztiek:

- 1.- Irmoki salatu eta arbuiatu nahi dugu eraso sexista berri hau.
- 2.- Gure elkartasun eta babes osoa helarazi nahi diogu erasoaren biktima izan den emakume gazteari, baita ere bere inguru hurbilari ere. Udalak bere zerbitzu eta bitartekoak bere esku jartzen dituelarik.
- 3.- Udalak kasuaren jarraipen zorrotza egingo du, eta behar den lekuan agertuko da erasoak jasan duen pertsonaren eskubideen denfentsan.
- 4.- Irailaren 25ean bi emakume andoaindar izan ziren erasotutak eta orduan esandakoan berresten gara;. Indarkeria matxista **lehen mailako arazoa** da. Emakumeen eguneroko ogia. Jendarte osoaren arazo larria. Oraindik, neurri handi batean, ezkutuan mantentzen da, justifikatu eta tapatu egiten da. Ez da inola ere, ordea, esparru pribatuari dagokion arazo bat. Arazo kolektiboa da, guztiona, eta guztion ardura da indarkeria matxistari aurre egitea, emakume eta gizonena, herritar, elkarte zein erakundeena.
- 5.- Hori dela eta, erasoak salatzeko, 15 minutuko elkarretaratzea deitzen dugu biharko, urriaren 10erako, arratsaldeko 18:30etan, udaletxe aurrean.

ERASO SEXISTARIK EZ!

Andoainen, 2018ko urriaren 9an